

## B21

### Egun batean sartu ninçan...

Maiteminaren ardurarik ez izatetik amoreminez gaixo izatera igaro denaren istorioa kontatzen da poema honetan. Lehenengo lerroetan (1-18), maitasunaren ardura eta kezkarik ez duen gizon moduan aurkezten du bere burua; gero (19-36 bertso-lerroetan), zehazten du noizbait izan dela maitemindua, baina ahaztuak dituela lehengo penak. 37-96 bertso-lerroetan, ordea, berriz agertzen zaio Amore jauna, Kupidoren atributuekin pertsonifikatua, eta berriz erasotzen dio, *donzella linda graciose*a ondoan ipiniaz. Protagonistak ezin du Kupidoren gezia saihestu, baina, ordainetan, dontzeilaren bihotza ere gezi horrekin jotzea eskatzen du, alferrik (97-120 bertso-lerroak).

Bederatzi-hamar silabako lerro bakoiti libreak eta *-ric / -nic* errima duten zortzi silabako lerro bikoitiak konbinatzen dituzten distikoen segida da, eskuizkribuko beste poema batzuetan ere aurkitu dugun ahapaldi-egitura (9/10 -, 8 a), hain zuzen.

<1197v>	Egun batean sartu ninçan villa on baten bacarric, amorearen min-berarraz <sup>1</sup> ondo descuidaduric, pensamentuau ez neucala nic agan ocupaduric, aen podere andiagaz ez neducala conturic; seguro ustez ez nioean <sup>2</sup> bapere prebeniduric, neure beguioc neroeala <sup>3</sup> librero <sup>4</sup> desplegaduric,	5         10
---------	--	---

<sup>1</sup> *amorearen min-berarraz*: ‘amorearen mina sortzen duen belarraz, amoreminaren belarraz’. Ez dugu aurkitu *min-belar* izeneko landarerik; bada *berarmina* ‘artemisia’, baina ez dirudi hemen hortaz ari denik. Sinesgarriago iruditzen zaigu *min* ‘desio, irrika’ izenarekin sorturiko konposatua izatea.

<sup>2</sup> *nioean*: ‘nihoan’; baina cf. beheraxeago *niñoala* (B21: 15). Formari dagokionez, ikusi baita *banijoean* (B30: 10).

<sup>3</sup> *neroeala*: ‘neroazalarik, neramatzalarik’.

<sup>4</sup> *librero*: ‘libreki’; ez dago *OEHN* bildua eta ezagutzen dugun lekukotasun bakarra da.

traidoreonen <sup>5</sup> redeagaz <sup>6</sup>	
ez neben memoriaric.	
Uste dot ece niñoala <sup>7</sup>	15
lo, ce ez iraçarriric. <sup>8</sup>	
Vici ninçala uste neben	
ardura ba[ga] libreriric; <sup>9</sup>	
neure buruau baneducan <sup>10</sup>	
çaarçat <sup>11</sup> jubiladuric.	20
Tenpora baten Amoreorrec,	
baçugaz <sup>12</sup> consultaduric,	
bere corteti ni baninduan	
eçarri desterraduric;	
ala ni, bada, egun azquero <sup>13</sup>	25

<sup>5</sup> *traidoreonen*: Ez da erraza interpretazio egokiena zein den erabakitzen, artikuluaena ala erakuslearena. Eskuizkribuak sintagma osoa lotuta dakar, eta halaxe utzi dugu hemen.

<sup>6</sup> *redeagaz*: ‘sarearekin’; cf. Lcc “red, *erredea*”.

<sup>7</sup> *niñoala*: ‘nihoala’.

<sup>8</sup> *iraçarriric*: Eskuizkribuan bi aldiz aurkitu dugu *iraçarriric* forma (AL: 1152r, B21: 16) eta hiru aldiz *iraçarric* (A16: 72, A23: 36 eta A28: 160).

<sup>9</sup> *ardura ba[ga] libreriric*: Antzeko esamoldea dago eskuizkribuko beste leku batean, han ere maitemindurik ez dagoenaren egoera adierazteko: *libreriric eta ardura бага* (A1: 51).

<sup>10</sup> *baneducan*: *ba-*, Lazarragaren eskuizkribuan, aditz aurreko soila da batzuetan, eta ez du nahitaez galdegaia markatzen; hala da poema honetako B21: 19, B21: 23, B21: 61, B21: 65 eta B21: 91 lerroetan.

<sup>11</sup> *çaarçat*: Hitz honetan jatorrizko bokal arteko kontsonantea galdu da; bitan ageri zaigu hitz hau testuan, behin bokal bikoitza gordeta (*çaarçat* B21: 20), eta beste behin bokalak erabat asimilatuta (*ipuiçarric* A23: 6). Landuccik ez dakar bokal bikoitzik: “añçiana cosa, *gauça çarra*”, “enuegeçido, *çarra*”.

<sup>12</sup> *baçugaz*: Badirudi eskuizkribuan *batzu* dela oinarritzko gisa erabiltzen den forma. Absolutibozkoetan *batzu* forma bakarrik darabil (AL: 1139v, AL: 1141v, AL: 1146v, AL: 1154v), Hegoaldeko testu zaharretan agertzen ez dena; ikusi *OEhk* zer dioen (s.v. *batzu*): “Los autores septentrionales de los ss. XVI-XVII distinguen formalmente los casos absoluto y ergativo; hay dos sistemas: *batzu / batzuk* es el de Leizarraga (Dechepare usa *batzu* para el caso absoluto, pero no hay ejs. de ergativo), y *batzuk / batzuek* el de Axular y Etcheberri de Ziburu; Pouvreau utiliza ambos: *batzu, batzuk / batzuk, batzuek*. [...] Al Sur no hay diferenciación formal: en los textos guipuzcoanos, desde el s. XVIII, se encuentra *batzuek* para ambos casos, y en los vizcaínos —ya desde Capanaga— *batzuk*”. Soziatibozko forma (*baçugaz*) horren gainean eraikia dela dirudi, *-gaz* gehituta; genitiboari dagokionez, *baçuen* da darabilen forma bakarra. Hauxe dakar *OEhk*: “*Batzuen* es casi la única forma para el genitivo: *batzuren* sólo se encuentra en Leizarraga (junto a *batzuen*), Oihenart y unos pocos autores meridionales del s. XX”.

<sup>13</sup> *egun azquero*: ‘egun hartaz geroztik’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki

	nengoan despediduric;	
	uste ez neben içango çala	
	secula amistaderic.	
	Eguin eustan agrabioa	
	Amoreonec eçaunic, <sup>14</sup>	30
<1198r>	nay equion <sup>15</sup> nic aren contra	
	oy <sup>16</sup> ez neducan <sup>17</sup> quexaric;	
	ez eben gura nic aren causaz	
	eguin neguian negarric,	
	ecusen guero <sup>18</sup> ez neucana <sup>19</sup>	35
	ecertan bere <sup>20</sup> bearric. <sup>21</sup>	

---

“erakuslea + instrumentala + *-quero*” eta “partizipio + *azquero*” egiturak erabiltzen dira. Hemen “deborazko izen + *azquero*” dugu.

<sup>14</sup> *eçaunic*: ‘ezagaturik, oharturik, jakinik; ezagutu zuenez’; ez dugu aurkitu erabilera honen beste lekukotasunik.

<sup>15</sup> *nay equion*: ‘nahi zekion, nahi izan zuen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. Mendebaldeko eta erdialdeko testu zaharretan *nahi izan* aditz-lokuzioak balentzia berezia du: esperimentatzailea (edo subjektua) datiboan du eta estimulua absolutiboan: *Verba orri nay ez daquiola valia* (Olasoko kantua, TAV 88-90); *Iaun goicoari nai eztaquiola* (Kapanaga 129). Orain arte ezagutzen genituen testuetan balentzia berezi hori jusibozko eta botibozko perpausetan baizik ez bazen lekukotua, Lazarragak, bi ingurune horiez gain, indikatiboan ere erabiltzen du, iragan burutuan hain zuzen: *nay equion nic aren contra / oy ez neducan quexaric; / ez eben gura nic aren causaz / eguin neguian negarric* (B21: 31-34). Cf. halaber: *suplicaetan nachaçu, Sirena ene / laztana, nai daquiçula gaur gabeen / ceure aposentuco bentanara joaten* (AL: 1140r), *Jaicoari nai eç daquiola çu joan da ni eben guera nadila* (AL: 1151v), *Nachaçu suplicaetan nay daquiçula, ene peneau oneyn andia dan azquero, remedioa emun jaguite* (AL: 1152r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Enparaetan bardin bajaçu / beste çaguita çorroçic, / onen bioçau nay bequiçu / efini señaladuric* (B21: 101-104). Beste inguruneetan Lazarragak ere \**edun* hobesten du: *Bada bere, nai ez neuque, / mundu guziagaitirren, / çuregaz ene secretoa / descubri lidin bapere* (AL: 1144v), *Bioçau jo deustaçu anech flechaz, / nigaz conturic eguin nay ez doçu* (A17: 3-4).

<sup>16</sup> *oy*: Eskuizkribuko poemetan maiz erabiltzen dira *oy* eta *oyta* betegarriak (bakanka *oy eta*), bertso-lerroen neurri egokia lortze aldera.

<sup>17</sup> *ez neducan*: ‘eduki ez zezan’; *eduki* aditzaren iraganeko subjuntibo trinkoa.

<sup>18</sup> *ecusen guero*: ikusi baitzuen, ikusi zuenez’; *ekusi* aditzaren iraganaldi trinko zaharra da. *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpaus kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n guero* horietako bat da hau.

<sup>19</sup> *neucana*: *-na* konpletiboa da.

<sup>20</sup> *bere*: ‘ere’.

<sup>21</sup> *bearric*: ‘errurik’; Lazarragaren eskuizkribuan, sei lekutan aurkitu dugu *bear* ‘erru’ (A16: 10, A27a: 22, B8: 8, B20: 33, B21: 36 eta B28: 6). Cf. *OEH*, s.v. *bear*: “‘Culpa, bearra’, ‘culpar, bearr egotzi’ Lcc. *Odol bearbagea, agirtuko da egia eurea*. ‘Sangre sin ser necesaria [traducción incorrecta por ‘sin

Bere criadu leialaz nola<sup>22</sup>  
 a niçaz acordaduric,  
 dei eguin cidan<sup>23</sup> neure icenaz,  
 neurc<sup>24</sup> baice<sup>25</sup> sentiçacaric.<sup>26</sup> 40  
 “Çu nundi çabilz, amoradua,  
 bacoçh<sup>27</sup> desconsoladuric,  
 ene cabaña realerean<sup>28</sup>  
 ala descarriaduric?  
 Gora eçaçu ceure beguioc, 45  
 badoçu sentimenturic:<sup>29</sup>  
 Amorea nayz eta nacusu,<sup>30</sup>

---

culpa’] descubrir se ha la tu verdad”. RS 208. *Ez dauko Peru Garziak bearrik / Ain gatx andia apukadua gatik*. “No tuvo culpa”. TAV 3.1.5, 17s. *Gu nagitzen bagera, gurea da bearra edo kulpa*. Mg CC 189 (CO 284 *geuria izango da erruba*)”.

<sup>22</sup> *nola*: ‘bezala’; *nola* konparatiboa oso ohikoa da tradizioan, baina Lazarragarenean hau bakarrik aurkitu dugu. Izenlaguna, ordea, ez da hain ohikoa tradizioan ere; Lazarragaren eskuizkribuan bat aurkitu dugu (*dichoso ni nolaco capitana* B20: 53).

<sup>23</sup> *cidan*: *Cidan* forma ez da hain bakana eskuizkribuan (cf. *cidan* 9 aldiz eta *eustan* 3 aldiz).

<sup>24</sup> *neurc*: ‘neuk’, izenordainaren forma zaharrear.

<sup>25</sup> *baice*: ‘baizen, baizik’; eskuizkribuan *baxe* eta *baize* formak agertzen dira (bakoitza zazpi aldiz, eta behin *baje*). Formari buruz, cf. *OEH*, s.v. *baizen*: “La variante *baxen* (<-ix-> a veces en fray Bartolomé) es propia de la tradición vizcaína; no se encuentra *baizen* en textos de este dialecto hasta el s. XX. Las formas sin *-n* se documentan en textos meridionales antiguos: *baize* en un texto alavés del s. XV, en una carta de Azpeitia del XVII y en el Catecismo de Cegama; *baxe* y *baxin* en Micoleta; *baizin* en *BBizk*”.

<sup>26</sup> *sentiçacaric*: ‘sentitzekerik, sentitu gaberik, ohartu gaberik’.

<sup>27</sup> *bacoçh*: ‘bakarrik’; forma honetako aditzondo bakarra da eskuizkribuan; gainerako agerraldietan *bacoçhic* dugu.

<sup>28</sup> *cabaña realerean*: ‘artalde errealetik, erregeren artaldetik’; cf. *DAut*, s.v. *cabaña*: “*Cabaña real*. Se llama la compañía de los hermanos del honrado Concejo de la Mesta, establecida para la conservación del ganado merino de todo el Reino, en grande utilidad y favor de él”.

<sup>29</sup> *badoçu sentimenturic*: Esapide hau eskuizkribuko beste toki batean ere agertzen da: *Oninbatenaz adi naçaçu / badoçu sentimenturic* (A23: 33-34).

<sup>30</sup> *nacusu*: ‘ikus nazazu’; *ikusi* aditzaren NOR-NORK agintera trinkoa; irakur bedi *nakutsu*, txistukari afrikatuarekin. Gisa horretako aginterazko forma trinkoak ez ziren ongi ezagutzen Lazarragaren testua agertu arte. Izan ere, historikoki, euskararen hizkera desberdinek egitura perifrastikoetara jotzen dute iragankorretako objektua 1. edo 2. pertsonakoa delarik. Cf. adibidez *Hiri cionat allaua*, **ençun neçan allauaiçuna** (Zalgize 131). Lazarragak, aldiz, forma trinkoak nasaiki erabiltzen ditu objektu mota hauekin ere: *naçuçu* (A10: 4), *erruqui nauca* (A16: 35, berorika), *naraçaçu* (A17: 48), *ce nafiñçu* (A17: 60), *nafiñçu* (B3: 70), *nacusu* (B21: 47). Arabarraren erabilera emankor horien ondoan, euskaraz ezagutzen den corpusean ez dugu beste bi aldiz baizik aurkitu objektua 1. pertsonakoa duen aginterazko

	baldin badoçu beguiric”.	
	Nic berba oec nençuanean, <sup>31</sup>	
	andiro admiraduric,	50
	chapez <sup>32</sup> lurrean efini neben	
	belaunoc umilladuric,	
	escuaz sonbreroa quendu ta	
	buruau inclinaduric.	
	Neure beguioc goratu neben,	55
	bildurra posponiduric.	
	Icusi neben <sup>33</sup> odei çuri bat,	
	çaguitaz <sup>34</sup> inguiraturic; <sup>35</sup>	
<1199r>	aren erditan <sup>36</sup> silla berde bat,	
	moraduz jaspeaduric.	60
	Silla onetan baegoan	
	sei <sup>37</sup> eder bat jarriric;	

---

forma trinkorik: bata *Arrasateko Erreketan* ([An]dra urena *Butroecoa nançuçu*, *Butr* A,6), eta bestea Oihenarten poesietan (*galdez nauzun horrez ukenduru negizu*, *Poes.* XXIV, 5).

<sup>31</sup> *nençuanean*: ‘entzun nituenean’; *entzun* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>32</sup> *chapez*: ‘errespetuz, arrandiaz’ esan nahi duela irudi luke; ez dugu aurkitu hitz honen esanahia zalantzarik gabe argituko duen azalpenik, baina badirudi erlazonaturik dagoela gaztelaniazko *de chapa* esamoldearekin; cf. *DAut*, s.v. *chapa*: “Hombre de chapa o muger de chapa. Phrase vulgar de conversación familiar, para explicar y significar que un hombre o una mujer es persona de prendas, valor, juicio y prudencia”.

<sup>33</sup> *Icusi neben*: 57-68 bertso-lerroetan deskribatzen den umea Cupido da, jakina. Antzeko deskripzioa dago AL: 1154v atalean ere, eta asko gogorarazten du Sebastian de Horozcorena (*apud CORDE*): “Detrás de estos venía un carro triunfal ricamente ataviado con sus arcos de arrayhanes, y en una silla alta venía Cupido muy bien vestido, como desnudo, de tafetanes colorados, sus ojos vendados y flechando su arco con su aljaba a las espaldas” (Sebastián de Horozco, a 1579, *Fiestas por la conversión de Inglaterra al catolicismo [Relaciones de Toledo]*). Cupido laino artean agertzea ere ez da, jakina, Lazarragaren asmakizuna; hona Cervantesenean ere antzeko eszena: “Suena música de chirimías; sale la nube, y en ella el dios Cupido, vestido y con alas, flecha y arco desarmado” (Miguel de Cervantes, 1615, *Comedia famosa de la casa de los celos y selvas de Ardenia*).

<sup>34</sup> *çaguitaz*: ‘geziz’; cf. lat. *sagita*. Hegoaldeko lehen agerraldiak bide dira Lazarragaren eskuizkribukoak.

<sup>35</sup> *inguiraturic*: ‘inguraturik’; cf. Lcc “enderredor, *ynguiruan*”.

<sup>36</sup> *erditan*: Bitan ageri da eskuizkribuan *erdi* hitza inesibo kasuan, eta bietan *-ta-* artizkiaz markatua, mugagabea (AL: 1153v, B21: 59).

<sup>37</sup> *sei*: ‘sein, ume’; halakoetan Lazarragak *-n* gabeko formak erabiltzen ditu beti: *arçai* (*passim*), *seychoa* (A25: 53), *sei* (B3: 13, B21: 62), *ipuiçarric* (A23: 6), *ipui* (B2: 2), *array* (A25: 53) eta *arraitan* B2: 12). Landuccik ere *-n* gabeko formak bildu zituen: “ovejero, pastor, *arçaya*”; “niño, *segui mutila*”; “peçe, pescado, *arraya*”.

narru çuriac estalceraco	
ez eben bestiduratic.	
Tafetan <sup>38</sup> gorriz oy baceducan <sup>39</sup>	65
beguiac reboçaduric; <sup>40</sup>	
escu batean arco galanpat <sup>41</sup>	
flecheaz adresçaduric. <sup>42</sup>	
Forma onetan nic neducala	
cençunau elebaduric,	70
ene aldeti igaro cidin <sup>43</sup>	
dama bat enriçaduric. <sup>44</sup>	
Ene parean eldu <sup>45</sup> eta	
criançaz, <sup>46</sup> comediduric,	
“Ongui <sup>47</sup> etorri, çu jauna” baice	75
ez esan <sup>48</sup> beste gauçaric.	

<sup>38</sup> *Tafetan*: ‘tafeta’; oihal mota honentzat, *tafetæ* (AL: 1154v) eta *tafetan* (B21: 65) formak erabili ditu Lazarragaren eskuizkribuak.

<sup>39</sup> *baceducan*: ‘zeu(z)kan’; adizki honek bi berezitasun aipagarri ditu. Lehenik, bere erroko *-d-a* gordetzen du; gisa horretako formek maiztasun handiagoa dute B testuan (*neducala* B21: 8, B21: 69; *baneducan* B21: 19, *neducan* B21: 32, *baceducan* B3: 28, B21: 65), A testuan baino (*daducaçun* A5: 24, *daducat* A10: 10); bizkitartean, herskari ahostuna askotan erortzen da B testuan ere: *dauco* (B3: 2), *daucadan* (B9: 17), *leucala* (B12: 45, A29: 25), *neucala* (B21: 5), *neucana* (B21: 35), *eucan* (A29: 29, 92). Bigarrenik, guztiz aipagarria da adizki honek *z-* aurrizkia gordetzea, iraganeko 3. pertsonakoa izanik. A testuan, 3. pertsonako adizkiek ez dute aurrizkirik hartzen iraganean (*eucan* AL: 1141r, 1142r,v, 1143r...), eta *z-* aurrizkidun formak 2. pertsonakoak dira (*ceucala* A26: 96, 98; *ceucan* A26: 106). Halere, B testuan ere *eucan* pare bat biltzen da (A29: 29, 92).

<sup>40</sup> *reboçaduric*: ‘estalirik’.

<sup>41</sup> *galanpat*: ‘galant bat’; halako lau aurkitu ditugu Lazarragaren eskuizkribuan: *aberaspatequin*, *aberaspategaz* (AL: 1146v), *garrazpi* (A14: 72) eta *galanpat* (B21: 67).

<sup>42</sup> *adresçaduric*: ‘destaturik, apuntaturik’.

<sup>43</sup> *igaro cidin*: ‘igaro zen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>44</sup> *enriçaduric*: ‘ileak kizkurturik’; cf. *DAut*, s.v. *enrizar*: “Encrespar, ensortijar, poner rizado el cabello u la cabellera”. Apainduraren sinboloa da; cf., adibidez, *CORDEtik* hartutako adibide hau: “¿Esperáis ver una dama galana enrizada, encopetada, pintada al óleo, enjaezada de aros, sedas y dijes?” (Fray Alonso de Cabrera, a 1598, *De las consideraciones sobre todos los evangelios de la Cuaresma*).

<sup>45</sup> *parean eldu*: Lazarragaren eskuizkribuan, *el(du)* ‘iritsi’ aditzaren osagarria beti dago inesiboan (*-n*) eta ez adlatiboan (*-ra*).

<sup>46</sup> *criançaz*: ‘hezieraz, hezibidez’; cf. *DAut*, s.v.: “Vale también urbanidad, atención, cortesía; y así las acciones buenas y honradas se califican por *de buena crianza*; y al contrario las malas y descortesés, por *de mala crianza*”.

<sup>47</sup> *Ongui*: Eskuizkribuan *ongui* bi aldiz agertzen da, eta bietan *ongui etorri* esapidean (B16: 28 eta B21: 75); gainerakoetan *ondo* dugu.

	Nesca-berbea nençuanean, chichitez <sup>49</sup> alteraduric, baxadu neben neure beguioc ceruco altureanic. <sup>50</sup>	80
	Donzella linda graciose nengoan lecoreanic <sup>51</sup> debisa neçan, <sup>52</sup> cerbait liçana <sup>53</sup> neuregan receladuric.	
	Ari beguira nengoala ondo disimuladuric, icerdi batec artu ninduan, penadu ninduan biciric; <sup>54</sup> sentidu neben Amorearen arcua desarmaduric,	85      90
<1200r>	ene bioça bacegoana <sup>55</sup> colpeaz maltrataduric.	

<sup>48</sup> *ez esan*: ‘ez zuen esan’; *esan* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zaharra. Sail honetako hainbat aditz dira Lazarragaren eskuizkribuan: *baesadan* (A25: 11, B16: 141), *baeson* (B3: 34, B3: 40), *nesonean* (B16: 136), *esan* (B21: 76).

<sup>49</sup> *chichitez*: ‘txit-txitez’.

<sup>50</sup> *altureanic*: ‘altutik’; ablatibo pleonastikoa behin baino gehiagotan agertzen da eskuizkribuan: *lecoreanic* (AL: 1145v, B21: 82), *arereanic* (A24: 130, B5: 71), *altureanic* (B21: 80), *O[e]reanic* (B33: 1).

<sup>51</sup> *lecoreanic*: ‘lekutik’; cf. 80. bertso-lerroko oharra.

<sup>52</sup> *debisa neçan*: ‘begiratu nion’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>53</sup> *liçana*: ‘zela’, *receladuric* aditzaren *-na* konpletiboa; XVI. mendeko autore gehienek *l-* aurrizkidun hipotetikoko formak erabiltzen dituzte iraganeko edo hipotetikoko aditz nagusiek gobernatu mendeko konpletibo, denborazko, final, zirkunstantzialetan. Askotan forma hauek zeharkako estiloa markatzen dute: *erregutu eusan bere emazteari eugui leguiala contu andia Silverori bear ebena emaitiaz* (AL: 1142r), *Egun baten, bada, bere bideti joeala, topadu çan arçai bigaz, ceñai Silviac itaundu eusten nora lloacen* (AL: 1147r), *Ceruetaco Erregueari / oy dira encomendadu / suplicaetan liçatela / nay lequiela lagundu* (AL: 1154v), *Egun ascotan nic eugin nagon / modu ascotan erregua, / arren, osatu nenguiala / a liçan guero medicua. / Errespuesta emayten cidan / liçala nesca onestua, / ayta-amaac liqueoela / berebico afrontua* (A21: 5-12), *Baeguion ayteac erregutu / gau baten arren lagun leguiola, / cerren aseguin andi leyola* (B3: 31-33), *Ama emazte luyen ala ez nahi nuque galdatu* (Etx III, 17), *Fray Vicentec esala, Fedea cina liçala* (Fray 171). Azpimarratu behar da Lazarragaren testua agertu aitzin erabilera horren lekukotasunak biziki urriak zirela mendebaldeko testuetan.

<sup>54</sup> *biciric*: ‘biziki’; *OEHN* agertzen diren *bizirik* guztien adiera “*bizirik* vs *hilik*” da.

<sup>55</sup> *bacegoana*: ‘zegoela’; *-na* konpletiboa; hirugarren pertsonetan *c-* aurrizkia agertzen den kasu bakanetakoa da; horri buruz, cf. gorago *baceducan* (B21: 65) eta hari dagokion oharra.

Bertati <sup>56</sup> boz bat adi neçan <sup>57</sup>	
ceruco odehy artaric:	
servi neçala donzella ura <sup>58</sup>	95
ordu bat faltaçacanic. <sup>59</sup>	
Erançun nagon: <sup>60</sup> “Ni noçun guero	
efinten <sup>61</sup> obligaduric, <sup>62</sup>	
donzella oni ez emun, jauna,	
ni eraiteco <sup>63</sup> armaric.	100
Enparaetan <sup>64</sup> bardin <sup>65</sup> bajaçu	
beste çaguïta çorroçic,	
onen bioçuau nay bequiçu <sup>66</sup>	
efini señaładuric”.	
“Erreguquetan didaçun guero, <sup>67</sup>	105
asco dot borondateric. <sup>68</sup>	

<sup>56</sup> *Bertati*: ‘berehala’.

<sup>57</sup> *adi neçan*: ‘entzun nuen’; aoristo edo iraganaldi burutu zaharra.

<sup>58</sup> *donzella ura*: *hura* erakuslearen adibideetako bat. Eskuizkribuan lau aldiz aurkitu dugu: *donzella ura* (B21: 95), *Donzella ura, cecusenean* (B21: 113), [...] *hura dacustan ordu orotan* (B29: 3), [*hu*]ra *estaqustanean* (B29: 5).

<sup>59</sup> *faltaçacanic*: ‘faltatzekerik, faltatu gaberik’.

<sup>60</sup> *nagon*: ‘nion’.

<sup>61</sup> *noçun guero* / *efinten*: ‘ipintzen bainauzu, ipintzen nauzunez’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpauis kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpauis kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n azquero* horietako bat da hau.

<sup>62</sup> *obligaduric*: ‘loturik, konprometiturik’.

<sup>63</sup> *eraiteco*: ‘hiltzeko’; *ero* aditza da. Cf. *OEH*, s.v. 2 *ero*: “Documentado en Dechepare, RS y Axular, y a partir de éste sólo en autores suletinos (si exceptuamos un ej. de HeH). La forma del sustantivo verbal es *eraite*- (cf. tbn. *erak* y *erezan* ← \**era* (*z*)*ezan*)”.

<sup>64</sup> *Enparaetan*: ‘enparatzen, geratzen’.

<sup>65</sup> *bardin*: ‘baldin’; Lazarragaren eskuizkribuan 11 aldiz aurkitu dugu *bardin*. Horietako batean bakarrik (AL: 1145v) du zalantzarik gabe gaurko ‘berdin’ esanahia, ‘berdintasuna’ adierazten duena; hiru aldiz (AL: 1151r, A25: 8, A27b: 7) ‘dena den, nonbait, beharbada, seguru aski’ adierazten du, gure ustez (cf. *OEH*, s.v., “de todas maneras, en cualquier caso” eta “probablemente, quizás”); behin (A12: 11) zalantza dugu bi adiera horietako zein ote duen; eta, azkenik, sei bider adierazten du baldintza (AL: 1172r, A24: 5, B15: 82, B16: 93, B16: 98, B21: 101).

<sup>66</sup> *nay bequiçu*: ‘nahi izan ezazu’; cf. gorago *nay equion* (B21: 31), eta hari dagokion oharra.

<sup>67</sup> *Erreguquetan didaçun guero*: ‘erregutzen baitidazu, erregutzen didazunez’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpauis kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Azalpenezko gisa interpretatzen ditugun perpauis kausaletarako *-n guero* eta *-n azquero* egiturak erabiltzen ditu; *-n guero* hau horietako bat da.



Efinico dot orren vioça  
 çureaz orapilduric”.  
 Au esan eta Amorioac,  
 agana beguiraturic, 110  
 bere arcua armatu eben  
 amen<sup>69</sup> bat berançacaric.<sup>70</sup>  
 Donzella ura,<sup>71</sup> cecusenean<sup>72</sup>  
 ala determinaduric,  
 acojidu çan sagradura<sup>73</sup> 115  
 arc emun бага colperic.  
 Ni arrezquero<sup>74</sup> beti nago  
 amoreminez<sup>75</sup> gaxoric.  
 Ay, ene desdichadua, bada,  
 ezpadot remedioric.

<sup>68</sup> *asco dot borondateric*: ‘borondate asko dut, asmo sendoa dut (hori egiteko)’; *-rik asko* egitura da. Esaldi hau dago A14: 36 bertso-lerroan ere.

<sup>69</sup> *amen*: ‘une, istant’.

<sup>70</sup> *berançacaric*: ‘berantzekerik, berandutu gaberik’.

<sup>71</sup> *ura*: *hura* erakusleari buruz, ikusi gorago B21: 95 bertso-lerroko oharra (s.v. *ura*). Eskuizkribuan *urac ecusenean* dakar, baina ez dugu aurkitu *urac* ergatibo bat ere euskal testuen tradizioan; hortaz, pentsatu dugu idaztean eginiko mozketak okerra dela.

<sup>72</sup> *cecusenean*: ‘ikusi zuenean’, dontzeilak Amorea, alegia; ; *ekusi* aditzaren aoristo edo iraganaldi burutu zahar trinkoa. Hirugarren pertsonetan *c-* aurrizkia agertzeari buruz, cf. gorago *baceducan* (B21: 65) eta hari dagokion oharra.

<sup>73</sup> *acojidu çan sagradura*: ‘eliz lurtean hartu zuen babesak’; eliz lurtean babesak hartzea zen iheslariei geratzen zitzaizen azken baliabidea.

<sup>74</sup> *arrezquero*: ‘geroztik’; *gero* adberbioa oinarri duen hainbat egitura erabiltzen du autoreak, perpaus kausal eta denborazkoak osatzeko nagusiki. Denborazkoak adierazteko, nagusiki “erakuslea + instrumentala + *-quero*” eta “partizipio + *azquero*” egiturak erabiltzen dira. Hemen erakuslean oinarritutako forma dugu.

<sup>75</sup> *amoreminez*: ‘maiteminez’; Berpizkundeko poesian topiko ezaguna da “amorez minduta” egotea (Petrarka, Garzilaso...): maitalea “amoreminez” dago, ezin duelako lortu maitatuaren amodioa (arrazoiak askotarikoak izan daitezke). Testuan hitz honek dituen agerraldi batzuetan esanahia hurbilago bide dago etimologiatik (AL: 1145r, A7: 78, A16: 47, A21: 2, B8: 12 eta B21: 118); aldiz, A11: 8 lerrokoa egun maitemina duen adiera arruntari dagokio.

## OHAR PALEOGRAFIKOAK:

**izenb.** Poema osoa idatzi da testu nagusiaren eskuinean geratu diren zuriuneetan, hemendik aurrerako orrialdeetan, testu nagusitik marraz berezita. **2** on] aurrean beste hitz bat, edo beste hitz baten hasiera (*bill* agian), tatxaturik. **13** redeagaz] aurrean *j* edo, tatxatuta. **18** ardura baga] eskuizkribuan *arduraba*. Osatu ezean, bertso-lerro hipometrikoa izango litzateke. **29** eustan] *eusten* idatzi du lehenengo, eta *-a-* gainetik zuzendu du. **52** belaunoc] ondoren bi letra, tatxaturik. **57** Icusi] *Ecusi* idatzi du lehenengo, eta tinta lodiz zuzendu du *E-*, gainean *I-* idazteko. **65** Tafetan] aurrean *j-z* hasten den zerbait (hiru letra edo), tatxatua. || gorriz] *berdez* idatzi du lehenengo, eta lerroartean zuzendu du. || Tafetan gorriz oy baceducan] *arccu galanpat bere escuan* idatzi du lehenengo, eta, lerro osoa tatxatu ondoren, hurrengo lerroan idatzi du. Ikusi, gero, 67 lerroa. **70** cençunau] aurrean hitz bat edo hitz-zati bat, tatxatuta: agian *bioç-* idatzi nahi, eta *bioc* idatzi du. **72** enriçaduric] aurrean sei-zazpi letrako hitz bat, tatxatua. **75** jauna] esk. *jauuna*. **85** Ari] aurrean *amo-* edo, tatxaturik. **88** penadu ninduan biciric] *credo bat berançacarie* idatzi du lehenengo, eta hori tatxatu ondoren lerroartean zuzendu du. **94** oday artaric] *altureanic* tatxatu ondoren idatzia. **104** señaładuric] esk. *senaladuric*. **106** borondateric] aurrean *p-* edo, tatxaturik. **113** ura, cecusenean] esk. *urac ecusenean*.

**Nola aipatu testu hau:**

Lazarraga, Juan Perez, 2012 [c. 1602], “B21 – Egun batean sartu ninçan...” [PDF], in G. Bilbao et al. (arg.), *Lazarraga eskuizkribua: edizioa eta azterketa (2.0)*, Vitoria-Gasteiz: UPV/EHU. Interneten eskuragarri: <<http://www.lazarraga.com>> [Kontsulta: uuuu/hh/ee].



Lan hau [Creative Commons-en baimen baten mende](https://creativecommons.org/licenses/by-sa/4.0/) dago